



GAZTETXOEN ASTEKARIA • 1.144. ZENBAKIA  
2025eko martxoaren 15a, larunbata

# m a n t a n g o r r i ASTEKO ASMAKIZUNA

Pertsonen bihotzean sartzen da lotsagabe-lotsagabe, baimenik eskatu barik, eta aterik jo gabe. **Zer ote?**



# Amamei gorazarre

MARISOL RAMIREZ / FOKU

# ZUEN TXOKOA



Zorionak, **Nikole**, gure etxeko izarra! Ohartzerako eman diozu seigarren itzulia eguzkiari. Segi Lur planeta eta espazioa esploratzen... infinituraino!



Anizko **Eihartze Maritorenak** 4 urte beteko ditu martxoaren 17an. Zorionak eta aunitz urtez **Petrieneko familia** guztiaren partez.



**Kala Armendariz Solaberrieta**

Jadanik 4 urte, pitusa! Asko-asko maite zaitugu. Izan zoriontsu.



Zorionak, **Ekai!** Lehen urtearekin eman dituzu lehen pausoak, laster izango zara gurekin batera baloiaren atzetik! Ez ekarri birus gehiago etxera! **Ipar eta Edur.**



Zorionak, **Ekia!** 5 urte polit eman ditugu elkarrekin dagoeneko! Besarkada samur bat etxeko gatz eta piperrari, **Ur, Lizar, aitatxo eta amatxoren partez!**

● **Bidali zure gutunak helbide hauetara** ● **Helbide elektronikoa:** mantangorri@berria.eus **Egoitza nagusia:** BERRIA, Mantangorri, Gudarien etorbidea, z/g. 20140 Andoain.

**Argitaratzailea:** Euskal Editorea SM **Lege Gordailua:** SS-616/05 **Zuzendaria:** Amagoia Mujika Tolaretxipi **Koordinatzailea:** Ane Insausti Barandiaran  
**Egoitza:** Martin Ugalde kultur parkea, Gudarien etorbidea, z/g. 20140 Andoain **ISSN:** 1699-728x

## ESPERIENTZIAK

### 'Eklipseak' liburuaren aurkezpena eta simulazioa Birtxi farozainaren eskutik

Martxoaren 22an • 17:00etan • Aranzadi zientzia elkarte • Zorroaga - DONOSTIA


Esperientzia: 5€

Eklipseak begiratzeko **betaurrekoak opari**

50 lagunentzako tokia izango da

**aldi hau** kontatzeko  
berria

**aranzadi**  
zientzia elkarte






# ZUEN TXOKOA



Kaixo, irakurle maiteok! Zer moduz? **Mungiako Bentades ikastetxetik (Bizkaia)** marrazki ugari jaso ditu MANTANGORRIk egunotan! Ikusi, ikusi, zer artista ederrak diren **MANTANGORRIren zaleak!** Mila esker guztioi!




**ERREPORTAJEA** : 'Amama. Irribarreen ondarea' antzezlanaren


# Jakintzaren transmisioa

**A** *mama, amona, amatxi, amandre, amiña, amañi...* modu askotara esan daiteke zure amaren ama ordezkatzeko duen hitza. Esaten den modura esanda ere, amamak badira garai baten lekuko, eta jakintzaren transmisore; izan litezke jolaserako lagun, eta iraganetik orainerako zubi. Hain zuzen ere, amamen figura omentzeko sortu du Eidabe antzerki taldeak *Amama. Irribarreen ondarea* antzezlanaren; otsailaren 2an estreinatu zuten. Aizpea Goenaga da antzezlanaren egilea, eta Eidabekoen enkarguz jaso zuen antzezlanaren sortzeko ardura. «Oso inportantea iruditzen zitzagun gure komunitatean hain inportantea izan

**Amonak omentzea du helburu Eidabe antzerki taldearen lan berriak: 'Amama, irribarreen ondarea'. Adinekoen jakintzaren transmisioa aldarrikatzen du, besteak beste.**

den figura hori nabarmentzea», azaldu du.

Lea izeneko 8 urteko neskatu bat da istorioko protagonista, eta badu korapilo bat, Goenagak azaldu duenez: «Bere lagunek bezala, amona bat eduki nahi du

Lea, eta haren bila hasiko da: eskolatik ateratzen denean zaintzeko, txotxongiloak egiten laguntzeko, inauterietako mozorro bat egiten laguntzeko, jolasteko...». Eskolan hasiko da amamaren bila; gero, objektu galduak dau-

den toki batera joango da, eta, bide horretan, egoera xelebreak biziko ditu.

Baina, halako batean, auzokide bat joango da bere etxera, Lea txikia zela hainbat egoeratik auzotik alde egin behar izan



zuena: Itziar. Hura bihurtuko da Learen benetako amama, hark beteko baititu Leak nahi zituen eginkizun guztiak. «Baina Lea ordurako hain dago haserre eta nazkatuta, denbora pasatu arte ez baita ohartuko hura denik bere amama».

Itziarrek, ordea, hainbat jolas proposatuko dizkio Leari. Esate baterako, hilabeteak kontatu eta data biribiletan ospakizunak egitea. Goenagak berak familiarekin egiten duen ariketa batean oinarrituta dago: pertsona batek ehun, berrehun edota hirurehun hilabete betetzen dituenean, ospatu egiten dute. Izan ere, ehun hilabete betetzen diren garaiak jaunartzearen garaiarekin bat egiten du; berrehun hilabete, nerabetik gaztera jauzi egitearekin, eta hiru-

rehun hilabete betetzean adinez nagusi bihurtzen baita bat. «Askotan, erritu kristauak eta katolikoek markatzen dizkigute pautak batzuk: jaunartzeak, esate baterako. Polita da beste modu bat sortzea ospatzeko, eta familia biltzeko».

### Transmisioaren «galera»

Kezka bat izan dute abiapuntu antzezlanaren sortzeko garaian: aitona-amonen bizitzari buruzko jakintzaren galera. Izan ere, Eidabe antzerki taldekoak sarri joan izan dira ikastetxeetara emanaldiak egitera, eta konturatzen ziren haur askok ez zekizkitela haien aitona-amonen izenak, edo zertan lan egiten zuten gazteagoak zirenean. «Transmisio kate horiek moztu egiten dira, eta polita da

●● Antzezlanaren estreinaldiko zenbait momentu. MARISOL RAMIREZ / FOKU

partekatzea. Jakingo bagenu gure amamaren berri, eta gure amamaren amamaren berri, bizitzari buruz askoz ere gehiago jakingo genuke», azaldu du sortzaileak.

Era berean, zenbait balio haurrengana iristeko familiek erantzukizuna dutela ere azpimarratu du Goenagak: «Neurri batean, maitasunaren balioa, zaintzarena... transmisio hori familiatik dator, hori ezin da beste inondik ekarri. Oso inportantea da balio horiek, bizikidetzarena, aniztasunarena eta abar familiatik eta beste belaunaldi batzuetatik etortzea». Mezu hori ere nabarmendu dute antzezlanaren bidez.

Baina balioak ez ezik, kantu edo melodia tradizionalak ere berreskuratu dituzte antzezlanean, musikak ere badauka-eta bere lekua: «Hitzak aldatuta, baina kantu tradizionalen melodia batzuk sartu ditugu, melodia alai batzuk, euskal kantagintzan ere badaudenak. Horiek erabili ditugu, eta polita da hori ere beste belaunaldi batzuei pasatzea. Azkenean, gure erritmoak dira, gure doinuak, eta horiek ere sortu ditugu».

Antzezlanak, hortaz, diziplina eta arlo ugari biltzen ditu: kantua, dantza, emozioen transmisioa... Ordubete baino gutxiago irauten du, baina Goenagak nabarmendu du bertan sentitutakoa ez dela antzezlanaren amaitzean itzaltzen. «Emozio oso baikorrek, oso politek eta oso hunkigarriek lotzen zaituzte amamarekin. Hori ematen dizu antzerkiaren bizipenak. Jendeari proposatzen diot ikustera joateko, gozatzeko, eta, gero, jarraitzeko antzezlanak uzten duen argi horri». Amamei egin dakizkiekeen galderak eta jakin-mina ez baitira inoiz amaitzen.

## FITXA

- ⊙ **Egilea:** Aizpea Goenaga.
- ⊙ **Zuzendaritza:** Ugaitz Alegria.
- ⊙ **Antzezleak:** Nagore Gonzalez eta Itxaso Gil.
- ⊙ **Musika:** Inun.
- ⊙ **Ahotsak:** Bihotz Gorospe.
- ⊙ **Soinu eta Argiak:** Xabi Urruti-koetxea.
- ⊙ **Soinu espazioa:** Kantauri estudioa.
- ⊙ **Eszenografia:** Asierito, Alfonso Reveron, Eidabe.
- ⊙ **Jantziak:** Sinpatron.
- ⊙ **Ilustrazioa:** Dani Padron.
- ⊙ **Diseinua:** blk Komunikazioa.
- ⊙ **Ikus-entzunezkoak:** Traola Produzioak.
- ⊙ **Argazkiak eta komunikazioa:** ilara.
- ⊙ **Ekoizpena:** Eidabe.




## HURRENGO EMANALDIAK

- ⊙ **Bihar:** Agurain (Araba).
- ⊙ **Martxoak 18,19 eta 20:** Irun (Gipuzkoa).
- ⊙ **Martxoak 21:** Ortuella (Bizkaia).
- ⊙ **Martxoak 29:** Loiuko Lauro ikastola (Bizkaia).
- ⊙ **Apirilak 4:** Lurreta (Bizkaia).
- ⊙ **Apirilak 8:** Leioako Irlandesas ikastetxea (Bizkaia).
- ⊙ **Maiatzak 17:** Mungia (Bizkaia).
- ⊙ **Maiatzak 23:** Maruri Jatabe (Bizkaia).
- ⊙ **Maiatzak 24:** Urduña (Bizkaia).



# DENBORA-PASAK




## 2. Zenbakien segida.

Ehunzangoak zure laguntza behar du eragiketa matematiko bat egiteko. Zein da hurrengo zenbakia? **Ez egin tranparik, eta kalkulagailua erabili gabe kalkulatu.**





## 1. Lotu puntuak.

Eta zuk, noiz bisitatu duzu amama azkenekoz? Zenbakiei jarraituz gero, amona baten **irudia osatu ahal izango duzu.**






Erantzunak: 2.- 8. 3.- A fitxa.



# 3.

**Dominoa.** Dominoan aritzea oso atsegin du Iratxek, baina ez daki zein fitxa jarri behar duen. **Zuk** asmatuko al zenuke?

## Azoka



### 'Anai-arreba kuttunak'

Aita unxiak istorioak kontatzen dizkio Xaturri. Batzuk asmatuak dira, baina benetakoak dirudite, eta beste batzuk benetakoak dira, baina asmatuak direla esango litzateke.

**Beatriz Yubero eta Amaia Arrieta**  
Argitaletxea: **Erein.**



### 'Berritsusauroa'

Berritsusauroak ibilaldi bat egingo du basoan, eta hamaika gauza ditu esateko txangoari buruz. Baina beti hizketan aritzeak eta inoiz ez entzuteak arazoak ekar ditzake... Utziko al dio Berritsuk berrikeretan aritzeari tartetxo batez, lagunak zer esan behar dion entzuteko?

**Rachel Bright eta Chris Chatterton**  
Argitaletxea: **Ibaizabal.**



### 'Amona Tomaxa eta sagarra'

Gose, oso gose da Amona Tomaxa. Sagarra du amets. Pausoa ote traket?

**Ixabel Agirresorabe eta Iñaki Martiarena «Mattin»**  
Argitaletxea: **Denonartean.**



### 'Txalopinak'

Haurra, kanta ezazu goizetik gauera, eta biziko zara txorien antzera. Lai, lai, lai txorien antzera.

**Antton Kazabon eta Jokin Mitxelena**  
Argitaletxea: **Denonartean.**



# BOST KARTA

Testua: **Miren Agur Meabe** • Marrazkia: **Kaiet Bengoetxea**

## Aztiaren karta

**A**rimarbolari begira gaude, isilik. Haizeak zurrumurru bat dakar... Amonaren ahotsa!

—Non zaude? —hasi naiz galdezka, aztoratuta—. Irten, ez jolastu ezkutaketan!

Beñatek besotik heldu dit, lasaitzeko:

—Gurasoak dira, Nora, guri deika.

Bai, noski, amona urtegian geratu zen eta. Ez da goxoa sentipen arraro hauekin bizitzea.

Bordara itzuli, eta agur esan diogu elkarri. Beñatek-eta gorantz jarraituko dute. Kemen-tsua da benetan.

Gu, txiri-txiri, kanpinerantz berriz, harik eta zabalune batean baseliza batekin topo egin dugun arte. Artzain zahar bat dago kanpoan eserita.

—Egun on! —egin digu diosagureak—. Egingo didazue mesede bat? Herren nago eta... Txiki, beteko didazu ontzi hau hor beheko iturrian?

Jakina baietz.

Eta han joan naiz, Xerpa ondoan, txoko polit-polit bateraino.

Haitz baten zulotik isurtzen da ur-xirripa, begi batetik malkoa bezala. Putzu bat ere bada go, eta landare baten gainean... karta bat: gizon bat mahai ba-



ten aurrean, makilatxo batekin.

Zer karta da? LE MAGE, aztia.

Geroxeago, artzainak esan digu iturriaren izena Aingerubegi dela.

—Eta zurea? —galdetu diot.

—Ni Xalbador naiz. Urte askotarako.

**Bi aste barru jarraituko du...**

**BOSTAKO**

**matin**



*matin 2015*